

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **Diputatu nagusiaren 263/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 25ekoa, ALHko kuadrilletan ingurumen teknikariak finantzatzeko laguntzak ematea onartzen duena**

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 24ko 42/2016 Foru Dekretuaren bitartez, kuadrilletan ingurumen teknikariak finantzatzeko laguntzen lerroaren 2016ko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu ziren. Ebazpen proposamen hau bat dator oinarri horietan jasotakoarekin; zehazki, seigarren oinarrian, prozedura izapidetzeko erari eta balorazio irizpideei buruzkoan, eta zazpigarren oinarrian, ebazpenaren gainekoan.

Eskaerak aurkezteko epea igaro ondoren, onuradun izan daitezkeen sei erakundeek laguntza eskatu dute. Aurkeztutako eskaera guztiek deialdiaren oinarrietan eskatutakoa betetzen dute, eta nahitaezko agiriak ere badakartzate. Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillak 36.808,20 euroko aurrekontua aurkeztu du 2016ko ekitaldi osorako, baina indarreko kontraturik ez dagoenez —laguntza hau jasotzearen mende dago—, aurrekontua murriztu du, eta aurreikusitakoaren arabera gauzatu ahal izango den aldira egokitu du, alegia, irailetik abendura. Murrizketa hila-bete kopuruarekiko proportzionala izan da eta, beraz, aurrekontua 12.269,40 euro izango da.

Sei eskaeretatik lau langileak kontratatzeari buruzkoak dira, eta beste biak laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzeari buruzkoak. Oinarrietan jasotakoaren arabera, laguntzen zenbatekoak mugak ditu: lehenengoen kasuan soldataren eta gizarte gastuen ehuneko 80, gehienez ere; eta, bigarrenean, fakturaren zenbatekoaren ehuneko 55, gehienez ere.

Aurkeztutako aurrekontuetan gehieneko ehuneko horiek ezarri ondoren, ikusi da laguntzen guztirakoa handiagoa dela deialdiaren diru hornidura baino (100.000 euro). Beraz, jaso beharreko zenbatekoak hainbanatu dira. Hainbanatze horren emaitza diren zenbatekoak ebazpen honen I. eranskinean jaso dira.

9. oinarrian ezarritakoaren arabera, dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60, "justifikatu beharreko aurrerakin" gisa, esleipen ebazpena ematen den egunetik aurrera ordainduko da. Horrenbestez, bidezkoa da ebazpen honen II. eranskineko "Lehen ordainketaren taulan" jasotako zenbatekoak ordaintzea.

9. oinarri horretan xedatu bezala, gainerakoa ordainketa bakarrean ordainduko da, dirulaguntzaren xedea bete ondoren. Ordaintzeko eskabidea 2016ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztuko da, eta, harekin batera, justifikazio kontu erraztua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, araudia onartzen duenak 75. artikuluan arautu du hori), zeinean ondoko zerrendan aipatzen diren informazioa eta egiaztagiria jasoko baitira:

1. Urteko lan planeko jardun memoria azalpenezkoa, zeinean jasoko baitira kontratatutako pertsonak edo pertsonak dagokion ekitaldian gauzatutako lanak eta lortutako emaitzak.

2. Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria identifikatuz, bai eta zenbatekoa, jaulkipen eguna eta, hala balegokio, ordainketa eguna ere. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira.

3. Kontratutako pertsonen nominen eta Gizarte Segurantzako TCen jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutakoak, edo dagozkien fakturenak.

4. Egindako gastuen ordainagiriak, behar bezala zerrendaturik. Salbuespenez, lortutako dirulaguntzak justifikatzeko gastuen ordainketa egiaztatu ezean, ordainketa justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da, eta dirulaguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu izanaren frogagiriak 2017ko otsailaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dira.

5. Lan kontratuak edo zerbitzu kontratuak formalizatzeko agiria. Horiez gain, laguntza teknikoaren kasuan, hiru aurrekontu aurkeztu beharko dira, alegia, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz onuradunak eskatu behar izan dituenak, non eta ez zituen aurkeztu eskabidearekin batera.

6. Kontratutako langileek unibertsitate titulua eta ingurumenaren arloko dagokion titulua daukatelako justifikazioa, tituluen kopia konpultsatuen bitartez.

7. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna, zenbatekoa eta nork emana den zehaztuz.

8. Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu gabeko gerakinak edo gerakinen ondoriozko interesak izatekotan.

Horregatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. ALHko kuadriletan ingurumen teknikariak finantzatzeko laguntzei dagozkien dirulaguntzak ematea, hain zuzen, I. eranskinean adierazitako zenbatekoak, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 24ko 42/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarrien arabera.

Bigarrena. Zenbatekoaren ehuneko 60 justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordaintzea. Gainerakoa ordainketa bakarrean ordainduko da, ordaintzeko eskabidea eta egiaztagiriak aurkezten direnean, zeinak 2016ko abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko baitira (II. eranskina).

Hirugarrena. Laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2016rako aurrekontuko 60.2.05.63.00.465.00.01 "Kuadriletako ingurumen teknikariak finantzatzea" partidaren kontura emango dira (xedapen erreferentzia: 105-2230/16.1.16).

Laugarrena. 4.2 oinarrian aipatutako ingurumen teknikarien sarearen hiru hilez behingo bilerarako deia egitea, zeina 2016ko irailaren 27an egingo baita Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bulegoetan (Probintzia plaza 4, 2. solairua).

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 25a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**AMAIA BARREDO MARTÍN**

**I. ERANSKINA**

## Emandako dirulaguntzen taula

ENTITATEA	AURREKONTUA	GEHIENEO EHUNEOA	AURREKONTUA X GEHIENEO EHUNEOA	DIRULAGUNTZA HAINBANATUA
Aiarako Kuadrilla	66.200,00	Ehuneko 80	52.960,00	29.733,92
Arabako Lautadako Kuadrilla	63.264,65	Ehuneko 80	50.611,72	28.415,51
Zuiako Kuadrilla	28.435,00	Ehuneko 55	15.639,25	8.780,52
Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	14.451,60	Ehuneko 80	11.561,28	6.490,98
Añanako Kuadrilla	50.740,79	Ehuneko 80	40.592,63	22.790,37
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	12.269,40	Ehuneko 55	6.748,17	3.788,70
			<b>178.113,05</b>	<b>100.000,00</b>

**II. ERANSKINA**

## Lehenengo ordainketaren taula

ENTITATEA	LEHENENGO ORDAINKETA (EHUNEO 60)
Aiarako Kuadrilla	17.840,35
Arabako Lautadako Kuadrilla	17.049,30
Zuiako Kuadrilla	5.268,31
Kanpezu - Arabako Mendialdeko Kuadrilla	3.894,59
Añanako Kuadrilla	13.674,22
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	2.273,22
	<b>60.000,00</b>